

1. ARTIKULLUA

Zergatik partaidetzazko aurrekontu hori?

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimen honen helburua da Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoko herritarren artean loturak sortzen lagun dezaketen mugaz gaindiko egitasmoak finantzatzea.

Era berean, diru-laguntza hauen helburua da herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektuetan inplikatzeko. Horrela, ekimeneren aukeraketa modu parte-hartzailean egingo da, eta puntuazio tekniko handiena lortu duten proiektuen artean herritarrek behin betiko hautaketa egingo dute bozketa bidez.



2. ARTIKULLUA

Nork aurkez dezake proiektu bat?

Diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte pertsona fisikoek, elkarteek, fundazioek, enpresek, unibertsitateek, udalek, mankomunitateek edo interes ekonomikoko taldeek, baldin eta, aurreko oinarrian jasotako jarduera-eremuaren barruan garatu beharreko proiekturen bat sustatzen badute.

Proiektu hauek derrigorrez, bi lurraldeetako eragileek elkarrekin aurkeztu beharko dituzte eta partzialki bada ere Gipuzkoan garatu behar dira.

Taldearen erakunde ordezkaria izendatu beharko da.

Eragile bakoitza gehienez bi proiektuetan egon daiteke, eta horietako batean bakarrik jardun ahal izango du ordezkari gisa.



3. ARTIKULLUA

Zein proiektu dira hautagarriak?

Proiektu bat hautagarria izan dadin, baldintza hauek bete behar ditu:

- Helburutzat izatea «Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako biztanleen artean loturak sortzea».
- Aurkezten diren proposamenak bat etorri behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoan identifikatutako erronkekin eta helburu estrategikoekin.
- Partzialki bada ere Gipuzkoan garatu behar da.
- Horretarako prestatutako formularioan xehetasunez aurkeztea,
- Interes orokorrekoa izatea (ez komertziala).

Aurreko deialdietan diru-laguntza lortu duten proiektuak aurkeztu ahal izango dira, betiere xede-publikoa edo onuradunak desberdinak badira.



4. ARTIKULLUA

Nola aurkeztu proiektu bat?

Proiektuak www.gipuzkoa64.eu web orrian eskuragarri dagoen formularioaren bidez aurkeztu behar dira.

Aurkezteko epea: 2024ko ekainaren 3a arte, barne.



5. ARTIKULLUA

Nork eta noiz egingo du proiektua?

Proiektua proiektuaren sustatzaileak egin behar du nahitaez, izan herritarra, herritar taldea edo elkarte..

Eskaerako jarduketak 2024ko urtarrilaren 1tik 2025ko urriaren 31 bitartean gauzatu beharko dira.

Proiektuaren sustatzailea adingabea den kasuetan, proiektuaren buru izateko ardura hartuko duen adin nagusiko pertsona baten edo pertsona juridiko baten (elkartera, fundazioa) laguntza izan beharko du.

Sustatzailea pertsona heldua bada, zuzenean hartuko du bere gain proiektua gidatzeko zeregina.



6. ARTIKULUA

Zein da laguntzaren zenbatekoa?

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektuak gauzatzeko 150.000 euro jarriko ditu.

Mugaz gaindiko partaidetzako aurrekontuak proiektuaren kostuaren % 100 finantzatu ahal izango du, gehienez ere 20.000 euro.

Proiektuak kopuru hori gainditzen badu, sustatzaileak konpromisoa hartzen du gainerakoa bere funtsekin edota bestelako diru-laguntzekin finantzatzeko.

Nori ordaintzen zaio laguntza finantzarioa?

Diru-laguntza lerro honetatik eratorritako ordainketak zuzenean egingo zaizkio erakunde ordezkariari.



7. ARTIKULUA

Nola hautatzen dira proiektuak herritarrek bozkatzeko?

Gipuzkoako Foru Aldundiko adituez osatutako Ebaluazio Batzordea aurkeztutako proiektu bakoitzaren bideragarritasun teknikoa aztertzeaz arduratuko da.

Mugaz gaindiko izaera nabarmena duten proiektuak baino ez dira aztertuko.

Ebaluazio-irizpideak: gehienez 70 puntu:

1. Proiektuaren deskribapena, motibazioa, plangintza eta metodologia: gehienez 30 puntu.
2. Herritarren parte hartzearen sustapen-maila: 10 puntu, gehienez.
3. Gazte-ikuspegia lehenestea - 25 urtetik beherako gazteek aurkeztutako proiektuak edo 25 urtetik beherako gazteei zuzendutako proiektuak: gehienez 10 puntu.
4. Eleaniztasunaren garapena: gehienez 10 puntu.
5. Proiektuaren genero ikuspegia: gehienez 10 puntu.

Gehienez, puntuazio onena lortzen duten 15 proiektuak hautatuko dira, betiere gutxienez 35 puntu lortu badituzte. Mugaz gaindikoak ez diren proiektuak ezabatuko ditu.



8. ARTIKULUA

Nola funtzionatzen du herritarren botoak?

Bozkatu beharreko proiektuen zerrenda www.gipuzkoa64.eu webgunean kontsulta daiteke.

Bozketa irekita egongo da 2024ko ekainaren 19tik uztailaren 9ra arte (biak barne).

Nork eman dezake botoa?

Gipuzkoan bizi den 16 urtetik gorako pertsona orok.

Gipuzkoako Foru Aldundiak botoak iruzurra saihesteko egiaztatuko ditu. Iruzurra gertatuz gero (posta elektronikoko okerrak erabiltzea, nortasuna ordeztzea, etab.) edo iruzur susmo handiak izanez gero, zehapen hauek aplikatu ahal izango dira:

- Proiektuaren ordezkariak iruzurra egiten badu, proiektua bozkatzeko zerrendatik ezabatuko da.
- Boto-emaile batek iruzurra egiten badu: haren botoa ez da kontuan hartuko.

Nola bozkatu?

Bozketa www.gipuzkoa64.eu webgunean egingo da.

Herritar bakoitzak 3 proiektu bozkatu behar ditu nahitaez.



9. ARTIKULUA

Nola aukeratzen eta finantzatzen dira proiektu irabazleak?

Boto gehien lortzen dituzten proiektuak irabazle izendatzeko irizpideak hauek dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak boto gehien jaso dituzten proiektuak finantzatuko ditu, 150.000 euroko aurrekontua agortu arte.
- Berdinketa gertatuz gero, puntuazio tekniko onena lortu duen proiektua izendatuko da irabazle.
- Aurrekontuak ez badu aukerarik ematen boto kopuruagatik hautatutako azken proiektua osorik finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskubidea izango du proiektua finantzatzeko behar den zenbatekoa osatzeko.

